

**Bizkaiko Foru Aldundiko Administrazio Orokorraren  
"Erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpena"  
Programaren ebaluaketa txostena.**

**Informe de Evaluación del Programa "Resolución de  
reclamaciones económico-administrativas" de la  
Administración General de la Diputación Foral de Bizkaia**

**2000**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## AURKIBIDEA/ÍNDICE

I. SARRERA .....	3
II. ONDORIOAK .....	5
II.1 Programaren helburuak betetzea .....	5
II.2 Egitura eta antolakuntza .....	8
II.3 Ebazpen prozeduraren analisia .....	10
II.4 Zerbitzuaren kostua .....	12
II.5 Beste auzitegi ekonomiko-administratibo batzuekiko alderaketa.....	13
II.6 Beste batzuk .....	13
I. INTRODUCCIÓN .....	16
II. CONCLUSIONES.....	18
II.1 Cumplimiento de los objetivos del programa .....	18
II.2 Estructura y organización.....	21
II.3 Análisis del procedimiento de resolución.....	23
II.4 Coste del servicio .....	25
II.5 Comparación con otros tribunales económico administrativos .....	26
II.6 Otros .....	26
ALEGACIONES .....	29

Vitoria-Gasteiz, 2002ko uztailaren 3a  
Vitoria-Gasteiz, a 3 de julio de 2002



## I. SARRERA

“Erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpena” izenburuko txosten hau, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2000ko urtealdiko 610.301 aurrekontu programa ebaluatzen duena, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeari jarraiki egin da, aurrerantzean HKEE, eta 2001eko apirila – 2002ko martxoa aldiko Lan Programan barne hartua dago.

Aztergai dugun programa hau funtzionalki Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboarekin identifikatzen da (FAEKA/TEAF); organo honen egiteko nagusia da zergadun bizkaitarrek aurkeztutako erreklamazioen berri izatea eta erabakitzea, Foru Ogasunak egindako zerga kudeaketazko ekintzen ondorioz aurkeztutakoak. Organo honek hartzen dituen erabakiek administrazio bideari amaiera ematen diote.

Gaur egun FAEKA Ogasun eta Finantzen sailean dago kokatua, zuzenean sail horretako Diputatuaren baitako dela. Honako hauez osatzen da: lehendakari bat, lehendakariorde bat, idazkari bat, eta 4 kidego buru, hauen baitako direlarik 10 kide eta 10 txostengile.

Ebazpen proposamenak kideek eta txostengileek egiten dituzte eta osoko bilkuran edo auzitegi sailean kideen gehiengo soilez ebazten dira.

Osoko bilkura lehendakariak, lehendakariordeak, kidego buruek eta letratu-idazkariak osatzen dute; osokoa elkartzen da 18.000 eurotik gorako erreklamazioak erabakitzeko, edota likidazio aurreko oinarri zergagarriak 300.500 eurotik gorakoak direnean. Gainerako erreklamazioak irtenbidetuko dituen auzitegi-saila lehendakariak, lehendakariordeak, dagokion kidegoko buruak eta kideek eta letratu-idazkariak osatzen dute.

Ebazpena igortzea beti da derrigorrezkoa eta erreklamaziogileak erreklamazioa ezeztutzat har dezake baldin eta Auzitegian aurkeztu duenetik urtebeteko atzeraldia baino luzeagoa izan badu.

Lanak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- 1999 eta 2000ko urtealdietan programaren helburuak aztertu eta bete direla egiaztatzea.
- FAEKAren antolamendua eta langileriaren egitura.
- Espedienteen azterketa bidez, prozedura administratiboen analisisa egin, erreklamazioak bideratu eta irtenbidetzeko behar izan ohi den denbora zehaztuz, hartara, balizko eraginkortasun eza, lan metaketa edota hobetzeko gai den kudeaketaren zehinahi alderdi antzematearren.
- Zerbitzuaren kostua.
- Eskuratutako magnitudeak beste auzitegi ekonomiko-administratibo batzuetan eskuragarri daudenekin alderatzea.



FAEKAREN aribidea arautzen duen legedia nagusia honako hau da:

- ZERGEI BURUZKO FORU ARAU OROKORRA, 159tik 169ra bitarteko artikulua.
- 116/1995 FORU DEKRETUA, irailaren 5ekoa, Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren eskumenak, osaera, antolamendua eta funtzionamendua arautzen dituena.
- 391/1996 ERRET DEKRETUA, martxoaren 1ekoa, Erreklamazio Ekonomiko-Administratiboetan prozedura-erregelamendua oniritzen duena.



## II. ONDORIOAK

### II.1 PROGRAMAREN HELBURUAK BETETZEA

Bi dira programaren helburuak azken urtealdietako aurrekontuetan jasotako oroit-idatzien arabera:

**1.-** Ebazteko dagoen erreklamazio kopurua murriztea: honen xedea da legegintzaldian zehar ebazpen epea gehienera urtebetera murriztea, 391/1996 Erret Dekretuak zehazten duen legez. Hau dela eta, urtero hainbat adierazle zehazten dira eta horien artean, besteak beste, urtealdian irtenbidetuko den erreklamazio kopurua dago.


Helburu honen gainean FAEKAz besteko den aldaera batek zuzeneko eragina du, hau da, urtealdian aurkeztu den erreklamazio kopuruak.

**2.-** Langileria informatu eta profesionalizatzea eta kanpoko irudia; hau guztia gauzatzen da jaulkitako ebazpenetan kalitate maila egokiari utsita eta horren erakusgarri egokia da goragoko auzialdiei errekurtsioa aurkeztu eta hauek oniritzitako ebazpen kopurua

#### II.1.1 EBAZTEKO DAGOEN ERREKLAMAZIO KOPURUA MURRIZTEA

##### A) EBAZPEN EPEA MURRIZTEA

2000ko urtealdian ebatzitako erreklamazio guztitik %14a baizik ez zen bideratu helburutzat hartutako hamabi hilabeteen barruan eta honenbestez, arestian aipatutako 391/1996 EDn finkatutako epea urratu da. Ehuneko hau 1999koa baino txikiagoa da, orduan erreklamazioen %25a zuzenbideratu baitzen. Ondotik azalduko dugun taulak urtealdiko ebazpenen zati-banaketa erakusten du, ebazteko behar izan duen denboraren arabera.





Aurreko taula azaltzeko bi alderdi argitu behar ditugu:

- 1999an urtebetez beherako epean erabakitako erreklamazio bolumenean eragina izan du erreklamazio kopuru handia trafiko isunengatik eta errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenegatik izateak; izan ere, horien onartezintasuna edo jarduketan artxiboa adieraziz ebazpen ugari bideratu baitzen.
- Hiru urtetik gorako aldian erabakitako erreklamazioen ehunekoak erdira murriztu da. Epe hau garrantzitsua da erreklamaturako zorra epe luzean indargabetu zitekeelako.

## B) ERREKLAMAZIOEN EBAZPENA

Urtero erabakitzen den erreklamazio kopurua estu-estu lotua dago erreklamaziogai den gaiarekin, izugarritzko goi-beheak izan ditzakeelarik segun eta zein den gaia. Hori dela eta, erreklamazio kopuruaren murrizketa ahalik eta esparru zabalenean gauzatu behar da. Ondoko taulan datu hauek azken lau urtealdietan izan duten bilakaera jaso dugu, baita dagozkion aurrekontuetan urte bakoitzerako finkatutako helburua ere:

Urtea	urtarril. 1ean gauzatzeko	Aurkeztutako erreklamazioak	Erabakitako erreklamazioak	abend. 31an gauzatzeko	Helburuzko erreklamaz.
1997	11.124	3.667	6.482	8.309	7.000
1998	8.309	3.732	5.232	6.809	4.250
1999	6.809	2.653	4.645	4.817	4.800
2000	4.817	4.217	3.403	5.631	4.500

Urtealdi bakoitzean erabakitako erreklamazio kopuruak behera egin duela egia bada ere, halaxe da ere, laurtekoan zehar erabakitzeko erreklamazio kopurua erdira murriztu dela.

Erabakitako erreklamazio kopuruak izan duen beheraldi honen zergatia da aurkezten diren erreklamazioak gero eta berezituagoak direla eta masiboki irtenbidetu zitezkeen haiek guztiak progresiboki urritu direla arrazonamenduetan antzekotasuna zutelako-edo.

Urtealdiko ebazpen kopurua urtealdi horretan aurkeztutako erreklamazio kopurua baino handiagoa izango da, ebazteko dauden erreklamazioak egiaz murriztea lortzeko. 1999 eta 2000ko urtealdietako oroit-idatziek magnitude biak elkarlotzen dituen adierazlea jasotzen dute; hona hemen:

Aurkeztutako erreklamazioen gainean erabakitakoen ehunekoak	1999	2000
Aurreikusitako %	145	128
Gauzaturako %	175	81



Erreklamazio kopurua aurreikusitakoa baino handiagoa egiten den uneetan, beharrezkoak diren giza baliabideak bideratu behar dira aurrejarri diren helburuak eskuratu ahal izateko.

### **II.1.2 EBAZPENEN KALITATEA**

FAEKAREN ebazpenak justizia auzitegien aurrean errekurri daitezke eta hauek epaia emango dute, FAEKAK emandakoarekin bat etorriko dena, edo aldiz, bestelako iritzikoa izango dena. Epai horien desadostasun mailak neurtzen du FAEKAREN epaien kalitatea.

1999 eta 2000ko programen oroit-idatziek kalitatearen adierazletzat hartzen dute FAEKAREN erabakien aurka aurkeztutako 200 errekurtsoko kopurua, eta errekurtsogileari oniritzitako errekurtsoen %25eko portzentaia.

1999an eta 2000n, hurrenez hurren, 236 eta 158 ebazpen errekurritu dituzte; honek urtealdi horietan FAEKAK jaulkitako ebazpen guztien gainean %5 inguruko portzentaia egiten du, eta %9,4 ebazpen ezeztzaile eta partzialki oniritzizko epaien gainean.

1999ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztutako errekurtsoei dagozkien 122 epai aztertu ditugu. Hauetatik %37 guztiz edo partzialki oniritzi dira eta %40, berriz, gaitzeritzi egin dira. Gainerako %23 auziaren mamari buruzko adierazpenik gabeko epaiei dagokie.


### **II.1.3 BILAKAERA AURREIKUSGARRIA**

Nahiz 2000ko urtealdirako aurreikusitako helburuak ez diren bete, abenduaren 31ko egoerak aurreko urtealdiekiko ageriko hobekuntza erakusten du.

---

---

12.31an ebazteko zeuden erreklamazioen antzintasuna



---


Taulak erakusten duen legez, urtebetetik gorako antzintasuna duen ebatzi gabeko erreklamazio kopurua nabarmen urritu da, %53tik %28ra jeitsiz.

Gogoan hartzen badugu:

- urtebetetik beherako antzintasuna zuten espedienteetatik, 2000ko abenduaren 31an ebazteko zeudenak 2.056 aurrejubilatuei egindako hainbat ordainketaren okerreko errentagatiko erreklamazioei dagozkiela eta horietatik 652, 01.06.30ean ogasuneko kudeaketa zerbitzuek zuzenbideratu dituztela,
- 2001eko ekainera arte ez zirela 1.000 erreklamazio baino gehiago aurkeztu, ondorendu dezakegu 12 hilabetetik beherako epean espediente guztiak erabakitzeke helburua lor dezakegula, beti ere, horretarako plantilla behar hainbatekoa eta egonkorra baldin bada.

## II.2 EGITURA ETA ANTOLAMENDUA

FAEKAREN egiturak egonkor eutsi dio azken lau urtealdietan Lanpostuen Zerrendaren arabera, guztira 49 lanpostu dituela.



Txostengile eta kideak ez dituzte kidegoetara atxikitu, izan ere, horietakoren batera atxikituak dauden arren, inoiz beste kidegoren batetarako lanak ere egiten baitituzte. Honela, bada, 2000ko urtean 7 txostengilek kidego batentzat baino gehiagorentzat lan egin zuten.

Plantilla hau, FAEKAN egiten duen lanaren arabera, ondotik erakusten den moduan zati-bana daiteke:

Funtzioa	LZ	Batez best. plant.2000
Espedientea prestatzea .....	14	12
Txostena garatzea .....	24	18,6
Erreklamazioa ebaztea .....	3	3
Babes administratiboa .....	8	6,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>49</b>	<b>39,7</b>

Ikus daitekeen moduan txostenak egiten diharduen langile kopuruak ez du FAEKAREN plantillaren %50 gainditzen. Txosten honen IV. atalean adierazi dugun legez, egiteko hau da erreklamazioak ebazteko prozesua gehien moteltzen duena.



2000ko abenduaren 31an txostenak egiteko lanpostu hutsak honako hauek ziren:

Lanpostuaren izena	LZren arabera dotazioa	00.12.31an plantilla	Titulazio taldea	Maila
Kidego buruak (*).....	4	3	A	27
Kideak .....	10	4	A	25
Txostengileak.....	10	10	(**) A/B	24

(\*) Txostenak egiteko dedikazioa partziala da.

(\*\*) 00.12.31an txostengileen plazetarik bat ere ez zuten A taldeko funtzionarioek betetzen.

2000ko urtean zehar txostengile bakoitzeko egindako kopurua 196koa izan da, hau da, ia lanegun bakoitzeko txosten bat. Adierazle hau izugarri alda daiteke segun eta erreklamazioa zein eratakoa den, duen zailtasunaren arabera, edota gutxi gorabehera antzekoa den kolektibitate bat eragiten duten gaiei buruzko banakako erreklamazioak baldin badaude, guztiak aldi berean erabakitzeko moduan. Egoera hauek itxura batean txostengileen emankortasuna izugarri haztea eragin dezakete.

Helburuak ahalik eta eperik laburrenean eskuratu ahal izateko, beharrezkoa litzateke FAEKAREN langileen egitura egokitzea, txostenak mamitzeko egitekoa indartuz eta dauden lanpostu hutsak betez; horretarako, behar bada, beharrezkoa izan daiteke dauden kideen plazak txostengile plaza bihurtzea, lehenengo horiek betetzeko arazoak baitituzte.

Orobat, BFAREN informatika sistemek azken urteotan izan duten hobekuntzak, administrazioan eta espediente prestakuntzan diharduen langileria murrizteko bide eman behar luke.

### II.3 EBAZPEN PROZEDURAREN ANALISIA

Erreklamazioaren izapideak hiru atal besarkatzen ditu, aurrez aipatu ditugunak:

- Espedientearen prestakuntza: erreklamazioa aurkeztuta hasten da eta espedientea txostengileen eskura jartzearekin amaitzen da.
- Txostena mamitzea: espedientea aztertu eta ebazpen proposamena egitean datza.
- Ebazpena: FAEKAK ebazpen proposamena eztabaidatu, eta kasua balitz, oniritzia eman, erreklamazioaren zenbatekoaren arabera aretoan edo osoko bilkuran elkaturik.

Gerora, zergadunari hartutako erabakia gutun ziurtatu bitartez jakinarazi behar zaio, edota, jakinarazterik ez balego, Bizkaiko Agintaritzaren Aldizkarian argitara emanez.

Tramitazioaren batez besteko aldia neurtzeko 172 erreklamazioko lagina aztertu dugu, 1999az geroztik erabakitakoak edo erabakitzeko daudenak. Adierazgarri gisara 391/1996 Dekretuak faseren baterako ezartzen dituen epeak erakutsiko ditugu:



Fasea	Laginaren batez b. aldia	Legez gehieneko aldia
Prestakuntza .....	167 egun	
Egiterapena .....	382 egun	
Ebazpena .....	39 egun	Urtebete
Jakinarazpena .....	82 egun	10 egun

Prozedimendu guzti honen atalik luzeena ebazpen proposamena garatzekoa da; gogoan hartuz gero, ebazpen proposamena egun eta txostengile bakoitzeko batez bestean ia lekoa izan ohi dela, ondorioztatu dezakegu ia denbora honetan guztian espedientea prestatua eta aztertu zain egon ohi dela.

Prestakuntza atalak honako eginbide hauek besarkatzen ditu.

1. Erreklamazioa jaso, erreklamaziogilearen nortasuna egiaztatu eta erreklamaziogai den ekintza administratiboa agindu duen zerbitzu edo erakundeari espedientea eskatu.
2. Espedientea eskuratu.
3. Zergadunaren eskura jarri, aztertu eta alegazioak aurkez ditzan.
4. Erreklamaziogileak aurkeztutako alegazioak jaso.
5. Espedientea txostengileen eskura jarri.

	Egunen batez b. laginaren arab.	Legez gehieneko epea
1. Erreklamazioa jaso .....	34	5 egun
2. Espedientea jaso .....	39	15 egun
3. Zergadunaren eskura jarri. ....	7	
4. Alegazioak jaso .....	36	15 egun
5. Txostengileen eskura jarri .....	51	
<b>GUZTIRA</b>	<b>167</b>	

Erreklamaziogilearen espedientea eskuratu arte iragan ohi den denboraren arazoia da, zenbaitetan espedientea hainbat erakunderi eskatu behar izaten zaiola edo beste batzuetan, Diputazioaren beraren hainbat zerbitzuri; baita, erreklamaziogilearen nortasuna egiaztatzean arazoak sortu ohi direlako ere.

Azken bi jardunbideei bagagozkio, erreklamaziogileak espedientea bere eskura jarritakoan alegaziorik aurkezten ez duenean atzeraldi larriak gertatu ohi direla ikusten da, 200 egunetik gorakoak. Honenbestez, beharrezkoa da espedienteetan jarraipen zorrotzagoa egitea, tramitearen atal bat ez gauzatzeak prozedimendua beharrik gabe eten eta luzatzea ekidinez.

Prozedimenduaren azken ataleko epeak, hau da, Osoko bilkuran erreklamazioa erabaki eta zergadunari jakinarazteari dagozkionak, urtean egin ohi den osoko bilkura kopuruaren eskutik datoz, 2000ko urtean 9; bilkura kopurua areagotuko balitz, hileroko edo hamabostero eginez, ebazpen proposamena dagoenetik, oniritzi eta zergadunari jakinarazten zaion arteko



denbora murriztea ekarriko luke; honez gainera, administrazioko lana modu homogeneoagoan zati-banatzeko bide emango luke.

Honenbestez, nola eta ez den sarreraren kopuruan beheraldi adierazgarririk gertatzen, guztizko epea murrizteko txostengile kopurua areagotu behar da, edota horien emankortasuna gehitu; honetan lagungarri izan daiteke espedientearen prestakuntza arrazionalizazio handiagoaz egitea, esate baterako:

- Antzekoak diren erreklamazioak metatzea.
- Espedientea ebazteko zailtasuna balio-neurtzea.
- Auztegiak aurrez erabakitako antzeko kasuen dokumentazioa.
- Auzitegiak gaitasunik ez duen kasuetan, aztertu aurretiko fasean atzera botatzea.

Honez gain, erreklamazio batek prestakuntza aldiaren dirauen epearen kontrola ere areagotu egin behar da, zergadunari –alegazioak aurkeztu ez dituelako-entzutea emateko tramitean atzeraldiak izatea ekidinez.

## II.4 ZERBITZUAREN KOSTUA

Ondotik erakutsiko dugun taulak 1999 eta 2000ko urtealdietan hasierako aurrekontua eta 610.301 programaren kontura exekutatuako gastua erakusten du:

Kontzeptua	Euroak			
	1999		2000	
	Aurrekontua	Exekutatua	Aurrekontua	Exekutatua
Funtzionarioen ordainsariak .....	1.548.952	1.498.624	1.517.910	1.450.555
Lan kontratu finkodunen ordainsariak .....	58.010	58.965	83.889	82.801
Gizarte Kuotak .....	329.192	317.857	323.897	313.716
Funtzionamendu gastuak .....	15.025	13.499	15.777	13.228
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.951.180</b>	<b>1.888.945</b>	<b>1.941.473</b>	<b>1.860.301</b>

Ikus daitekeen moduan langileen gastuak programaren kostuen %99 egiten du.

Azken bi urtealdiak aztertuta ebatzitako epai bakoitzaren kostua 400 eta 550 euro bitartean balioetsi dezakegu. Hala eta guztiz ere, aztertu ditugun espedienteetatik, heren batek ez zuen izan Foru Ogasunarentzat 300 eurotik gorako eragin ekonomikorik.



## II.5 BESTE AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO BATZUEKIKO ALDERAKETA

Beste bi Aldundietatik jasotako datuak abiaburu hartuta, honako taula hau osatu dugu:

FAEKA	1999			2000		
	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
01.1-ean ebazteko dauden erreklamazioak .....	6.809	2.558	659	4.817	1.874	652
Jasotako erreklamazioak .....	2.653	909	296	4.217	707	270
Ebatzitako erreklamazioak.....	4.645	1.593	303	3.403	1.311	641
12.31an ebazteko dauden erreklamazioak .....	4.817	1.874	652	5.631	1.270	581
Ebazpenak lantzen ari den langile kopurua.....	18,95	8	5,58	17,45	7	6,97
Langile kopurua guztira .....	42,60	14	7,58	39,70	15	8,97
Kostua guztira (mila euro) .....	1.889	628	-	1.860	657	-

Araban pareko den erakundeak duen egitura guztiz bestelakoa da eta honenbestez, ezin alderatu izan dugu erreklamazioko kostua. Gipuzkoako lurralde historikoak duenarekin alderatuz gero, erreklamazioko kostua Bizkaiak duenaren parekoa da.

Aurkeztutako erreklamazioen aldean erabakitzeke daudenei dagokienez, ratioa antzekoa da hiru lurralde historikoetan; txostengile bakoitzeko ebazpenei dagokienez, berriz, Bizkaiko FAEKAK beste bi lurraldeen ratioa baino zertxobait altuagoa dauka.

Alderaketa honetan azaleratu da alde handiena lurralde bakoitzean aurkeztutako erreklamazio kopuruan dagoela. Honela, bada, Bizkaiko FAEKAN sarrera eman zitzaien erreklamazio kopurua 1999an, Araba eta Gipuzkoak elkartuta eman ziena baino %220 altuagoa izan zen, eta 2000n, berriz, %431 altuagoa, nahiz Bizkaiko zergadun kopurua beste bi lurraldeek batera dutenaren ia pareko den.

FAEKAK jasotzen duen erreklamazio bolumenaren gainean eragiteko duen gaitasuna oso urria da, izan ere, ez baitira bere ekintza propioen eraginaren ondorioz sortutakoak. Hala eta guztiz ere, FAEKAREN, BFAREN kudeaketa zerbitzuen eta zergadunen arteko komunikazioa egokia bada eta zergak arautzen dituen arautegia errazten bada, litekeena da aurkeztutako erreklamazio kopurua murriztea.

## II.6 BESTE BATZUK

### Zerbitzuaren kalitateari buruzko inkesta

Erreklamaziogileek zerbitzuaren kalitateaz duten iritzia neurtzearen inkesta bat egin dugu, erreklamazioa aurkeztu zuten eta 1999 edo 2000n erreklamazioa erabaki zen 99 zergaduni igorri dieguna. Jaso dugun erantzun kopurua 29koa baizik izan ez bada ere, hiru ondorio eskura ditzakegu:

- Ebazpena emateko epea luzeegia jotzen dute.



- Ebazpen eta jakinarazpenetarako erabili den lengoia ez da bereziki konplexua, ulerterraza baizik.
- Zergadunen erdiak baino gehiagok gai fiskaletan berariaz gaitutako kanpoko profesionalen laguntza eskatu zuten.

Era honetako inkestak guztiz fidagarriak ez badira ere, komenigarria litzateke FAEKak hainbatero halakoak egitea, izan ere, erabiltzaileak zerbitzuaz duen iritzia neurtzea beharrezkoa baita zerbitzuaren beraren kalitatea hobetu ahal izateko. Inkesta hauek aldian-aldian eginez gero, emaitzen bilakaerak noizbehinkako neurketa batek baino informazio adierazgarriagoa emango du.

### Espedienteen analisisa

Iada aipatu dugu txosten honetan 172 espediente berrikusi ditugula eta horietatik hainbat ondorio eskuratu ditugu, bereziki azpimarratzekoak direnak; hona hemen:

- Zazpi kasutan erreklamazioak ez ziratekeen izapidatzeko onartu behar, izan ere, horietako bitan erreklamaziogileak ez baitzuen izenik eman, beste lautan erreklamazioak ez baitzien FAEKAREN eskumeneko gaiei erreferentzia egin, eta azkenik, beste kasu batean, FAEKak iada ebatzia baitzuen aurrez erreklamazioa.

Halakoetan bereziki azpimarratu behar da erreklamazioaren onartezintasuna aitortuz jaulkitako probidentzien atzeraldia, bi kasutan izan ezik –hauetan, ondoko 34 egunetan jaulki baitziren- gainerakoetan, 241 eta 725 egun bitartean behar izan baitzizuten.

- Jarduketak artxibatuta erabaki diren 22 erreklamazioetatik, 17tan prozesuz kanpoko gogobetetzeagatik izan da, zera, erreklamaziogileek Ogasunari eskatzen ziotena prozedimendu honez besteko bideetatik lortu dute. Hamazazpi kasu hauetatik hamabost, errenten tratamendu okerrekoak eragindako erreklamazioak izan dira, zeinetan FAEKAREN egitekoa Ogasunak bideratu beharreko ofiziozko zuzenketa jaso zain egotea eta jarduketan artxiboa adostea izan baita.
- Aparteko tartea merezi dute aurkeztuz geroztik, hiru urtetik gorako atzeraldia izan duten erreklamazioek. Egoera honetan daude berrikusi ditugun erreklamazioetatik 12 eta nabarmentzekoa da horietako 9, toki tributuen kidegoari dagozkiola.

### Kidegoen egoera

Ondoko taulan kidego bakoitzeko erreklamazio eta ebazpen kopurua zehaztu dugu; baita 2000ko abenduaren 31n bakoitzean metatu den atzeraldia ere; hara hemen:



Kidegoa	Erreklamazioak		Ebazpenak		Ebazteko zain 31.12.00	Ebazteko erreklam. batez-best. antzintas.
	1999	2000	1999	2000		
Errenta.....	1.580	3.431	2.253	1.946	4.066	253 egun
Zeharkakoak .....	268	299	621	334	565	418 egun
Tokizkoak .....	627	298	1.498	948	760	477 egun
Bestelako zeharkakoak	178	189	273	175	240	278 egun
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.653</b>	<b>4.217</b>	<b>4.645</b>	<b>3.403</b>	<b>5.631</b>	<b>301 egun</b>

Ikusten den moduan, kidego batzuetako eta besteetako atzeraldiak eta lan zama guztiz bestelakoak dira eta nahiz txostengileak kidego batetik bestera FAEKAREN beharizanen arabera aldatzen diren, badirudi langileen anbibalentzia hau ez dela kidego bakoitzaren beharrak orekatzeko beharko zatekeen bezainbestekoa.

### FAEKAREN EBAZPENAK

Honako taula honetan FAEKAK azken bi urtealdietan jaulkitako ebazpenen izaera erakutsi dugu:

Erabaki mota	1999		2000	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Baietsitakoak .....	1.211	%26	947	%28
Zati batean baietsitakoak .....	654	%14	315	%9
Ezetsitakoak.....	1.832	%39	1.385	%41
Jarduketen artxiboa .....	540	%12	616	%18
Beste batzuk .....	408	%9	140	%4
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.645</b>	<b>%100</b>	<b>3.403</b>	<b>%100</b>



## I. INTRODUCCIÓN

El presente informe de evaluación del programa presupuestario 610.301 de la Diputación Foral de Bizkaia, denominado "Resolución de reclamaciones económico administrativas", correspondiente al ejercicio 2000 se efectúa de acuerdo con la Ley 1/1988 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia, en adelante TVCP/HKEE, estando incluido en el Programa de Trabajo del TVCP/HKEE para el período abril 2001 - marzo 2002.

El programa objeto de análisis se identifica funcionalmente con el Tribunal económico Administrativo Foral de Bizkaia (TEAF), órgano cuya principal función es el conocimiento y la resolución de las reclamaciones planteadas por los contribuyentes vizcainos por los actos de gestión tributaria efectuados por la Hacienda Foral. Sus decisiones ponen fin a la vía administrativa.

Actualmente el TEAF está encuadrado en el departamento de Hacienda y Finanzas, dependiendo directamente del Diputado de dicho departamento. Está constituido por un presidente, un vicepresidente, un secretario, y 4 jefes de vocalía, de quienes dependen los 10 vocales y 10 ponentes.

Las propuestas de resolución son formuladas por los vocales y ponentes, y resueltas en pleno o sala por mayoría simple de sus miembros.

El Pleno lo componen el Presidente, el Vicepresidente, los jefes de vocalía y el letrado Secretario, y se reúnen para resolver reclamaciones superiores a 18.000 euros, o cuando las bases imponibles antes de liquidación sean superiores a 300.500 euros. La Sala, que resolverá el resto de reclamaciones, la componen el Presidente, el Vicepresidente, el jefe y vocales de la vocalía correspondiente, y el letrado Secretario.

La emisión de una resolución es en todo caso obligatoria, pudiendo el reclamante entender desestimada su reclamación si aquella se retrasa más de un año desde su presentación ante el Tribunal.

El trabajo efectuado ha abarcado los siguientes aspectos:

- Análisis y verificación del cumplimiento de los objetivos del programa en los ejercicios 1999 y 2000.
- Organización del TEAF y estructura de personal.
- Análisis de los procedimientos administrativos mediante la revisión de expedientes, determinando los tiempos de tramitación y resolución de las reclamaciones, al objeto de detectar posibles ineficiencias, cuellos de botella o cualquier otro aspecto de gestión susceptibles de mejora.
- Coste del servicio.
- Comparación de las magnitudes obtenidas con las disponibles de otros tribunales económico administrativos.



La principal legislación que regula la actuación del TEAF es la siguiente:

- NORMA FORAL GENERAL TRIBUTARIA artículos 159 a 169.
- DECRETO FORAL 116/1995 de 5 de septiembre, por el que se regulan las competencias, composición, organización y funcionamiento del Tribunal Económico - Administrativo Foral de Bizkaia.
- REAL DECRETO 391/1996, de 1 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de procedimiento en las Reclamaciones Económico - Administrativas.



## II. CONCLUSIONES

### II.1 CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS DEL PROGRAMA

Los objetivos del programa de acuerdo con las memorias incluidas en los presupuestos de los últimos ejercicios son dos:

**1.-** Reducción del número de reclamaciones pendientes: Este objetivo está orientado a reducir, dentro de la legislatura, el plazo de resolución al máximo de un año fijado por el Real Decreto 391/1996. En este sentido, anualmente se fijan unos indicadores entre los que destaca el del número de reclamaciones a resolver en el ejercicio.


Sobre este objetivo tiene una influencia directa una variable exógena al TEAF que es la del número de reclamaciones presentadas en el ejercicio.

**2.-** Información y profesionalización del personal e imagen exterior, el cual se materializa en el mantenimiento de un adecuado nivel de calidad en las resoluciones emitidas, considerando un indicador adecuado el número de resoluciones recurridas ante instancias superiores y estimadas por éstas.

#### II.1.1 REDUCCIÓN DEL NÚMERO DE RECLAMACIONES PENDIENTES

##### A) REDUCCIÓN DEL PLAZO DE RESOLUCIÓN

Del total de reclamaciones resueltas en el ejercicio 2000 sólo un 14% habían sido resueltas en menos de los doce meses marcados como objetivo, incumpliendo, por lo tanto, el plazo fijado en el RD 391/1996, arriba mencionado. Este porcentaje es menor al de 1999, año en el cual se resolvieron el 25% de las reclamaciones. El siguiente gráfico muestra la distribución de las resoluciones del ejercicio en función de su tiempo de resolución.





Como explicación del cuadro anterior debemos señalar dos aspectos:

- El volumen de reclamaciones resueltas en menos de un año en 1999 está influenciado por una gran cantidad de reclamaciones por multas de tráfico y por retenciones a cuenta del impuesto sobre la renta, que fueron objeto de resoluciones declarando su inadmisibilidad o el archivo de actuaciones.
- El porcentaje de reclamaciones resueltas en un periodo superior a tres años se ha reducido a la mitad. La importancia de este plazo radica en la posibilidad de que pudiera prescribir la deuda reclamada.

## B) RESOLUCIÓN DE RECLAMACIONES

